



Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
MUSKILDA TELLABIDE
ETA ASIER AGIRRESAROBÉ

Pasai Donibane - Hondarribia I (Gipuzkoa)

Pasaiako bokalak eta Bidasoa ibaiak mugatua, zeruertzean ageri den mendi bizkar zorrotza da Jaizkibel. Gunerik garaienean 543 metro altxatzen den mendizerra luzanga, Kantauritik datozen haize hezeentzat harresia da. Haizabeen Jaizubia, Gaintxurizketa eta Lezoko bailara eta errekek babesten dira; haizaldean ekaitz eta enbatek behin eta berriz zigortzen dituzte hareharrizko itsaslabar bortitz eta ikusgarriak. Lurraren eta itsasoaren arteko besarkatze amaigabe horretan paisaia berezia sortu du higadurak. Hain dira bitxiak eta bihurriak bertako harkaitz egitura nabarrak, edozein mendizale txunditu eta liluratzeko gai direla. Leku ezkutu horretara iristeko modu bakarra Arando Handi muturretik Higererrainoko bidaian murgiltzea da, itsasertzetik ahalik eta hurbilen; labar, sakan, senaia eta kalak bata bestearen atzetik gaintituz. Ibilbide luzetxoa denez, bitan zatitu dugu, asteen aurrena eta hurrengoan bigarrena.

Jaizkibel, itsasertzaren lilura

Pasai Donibane eta Hondarribia lotzen dituen itsasertza, itxuraz mazela leunekoa eta ibilterraza, hamabost kilometro besterik ez da, baina malkartsua da erabat, gora beherez josia; erliebe zorabiagarria. Bidea giza eraginetik at dagoen zonaldean barneratzen da, arrasto hori eta ondoren berde lauso batzuk besterik ez dituzu izango bide-lagun. Arrasto horiek, olatuen etengabeko orroa eta kaioen karraka. Zidor lauso batzuk egonagatik ere, zuk zeuk bilatu beharko duzu bidea, oztopoak gainditu eta eskaintzen dizun edertasuna gozaten asmatu. Horretan guztian gutxi lagunduko dizute inguru honetaz dauden mapek; eskasak eta zaharkituak baitira.

Hasierako asmoa zeharkaldia egun bakarrean egitea zen. Abiatu eta berehala konturatu ginen, ordea, neguko egun laburretan nekez osatuko genuela ibilbidea egun argiz ibilita bakarrik, eta zentzuzkoena gutxienez bi zatitan egitea zela. Izan ere, bide osoa jarraian egiteko hamaika ordu baino gehiago behar dira, hamaika maldak gainditu behar direlako. Hala bada, bi egunetan egitea aholkatzen dizuegu.

Donibanetik Buenos Airesera

Pasai Donibane sarreran dagoen aparkalekutik abiatu eta etxe ilada zeharkatzen duen San Juan kale meharretik jarraitu behar duzue portu handi horren ahorantz. Bertako toki interesgarriak ikusi nahi izatera, ez duzue zaila, herriaren egiturak berak erakutsiko baituzte bidea, Arizabalo jauregia lehenik, San Joan Bataiatzailearen parrokia eta Victor Hugo idazle ospetsuak ostatu hartu zuen etxea ondoren. Ezkereskuin arrantzale etxe artean dago kalea. Moila, Pizkunde

garaiko Villaviciosa jauregia eta gurutze-tokia daude Santiago plaza baino lehen. Etxeetako herri arkitektura da plaza horretan aipatzekoa. Aurrera jarraitu, itsaso aldera, eta Bonantzako Santo Kristo Basilikaren ondotik pasa


Mitxitxola muinoa inguratuz Bonazaitza baserriaren arrastoetara iritsiko zarete; itsasora begira gertuan zeuden beste asko bezala militarrek suntsitu zuten

eta gero Oiartzun ibaiaren bokalea ekialdetik ixten duen pasealekuan sartuko zarete. Santa Isabel gaztelutik pasa eta Alaburtza senaiara iritsiko zarete.

Bidegurutzean porlanezko bide maldatsuak itsasargiraino eramango

zaituzte (80 m). Hor hasiko duzue benetako itsasertzeko bidea. Bokalearen muturrean den Arando Handi puntatik gora, ekialdeko Bantxa deituriko ertz zorrotz eta malkartsua altxatzen da, 250 metroraingo labar ikusgarriak itsasora amilduz. Hareharrizko gandor horretan gora jo behar duzue, forma guztietako harkaitz egiturak atzean utziz, zuloak, orratzak, korridoreak, pitzadurak... urak eta hai-zeak sortuak denak. Gora egitea zaila badirudi ere, ez da

hainbesterako. Lehen zatian gandorren ezker aldeko labar leunak utzi eta eskuinaldetik erlaitzetan aurrera doan bidezidorra jarraitu behar duzue, goraino. Behin hasierako zatia gaindituta, zabaldu eta erozoagoa egiten da bidea.





Itsasora amiltzen diren hainbat erreka pasako ditugu ibilian. Kanpo portua eraiki nahi dute erdiko argazkian ageri diren labarren parean. Eskuinean Orratz falikoa izenarekin batailatuta duden harkaitza.

Altuera irabazi ahala, are ikusgarriago irudituko zaizkizue itsasertzeko labarrak. Bokaleko sarrera menperatuko duzue eta zorte pixka batekin Pasaiaiko portuko zamaontzi itzelen bat portuko praktikoak gidaturik itsaso zabalera irteten ikusi ahal izango duzue. Bokalearen beste ertzean, berriz, Seneko zuloa, Platako itsasargia eta atzean Ulia mendia. Iparraldean, zabal, Atlantikoa. Goyaldean, ertz zorrotza belardi zabal eta leuna bilakatzen da, nahiz eta ezkerrean itsaslabarrak lehen bezain kementsu dirauen. Mitxitxola muinoa ezkerretik inguratuz Bonazaitza (Buenos Aires) baserriaren arrastoetara iritsiko zarete (245 m). Gertuan itsasora begira zeuden beste asko bezala –Londres zuen izena beste batek– leku hau militartu zenean desjabetu eta soldaduek suntsitu zituzten.

Sakan basatiak Azabaratza kalaraino

Jarraian ibilbideko zatirik basatienari egin beharko diozue aurre. Izan ere, Azabaratza kalaraino mendi hegala mozten duten lau sakan handi, sakan eta eskegiak gaintitu beharko dituzue igoera nahiz jaitsiera nekezak eginez. Lau sakan hauek itsasora urjauzi moduan amiltzen diren errekaetako zeharkatzen dituzte.

Izenak sakan horiek banatzen dituzten bizkar leunagoetan zeuden Iñalurreta, Saratxaga, Zunbillondo eta Arangua baserrietatik hartu zituzten. Iñalurreta da inguruotan zutik dirauen baserri bakanetakoa.

Kaletarako zidorra, abere bideak nahiz Lezorako ur eroapen zaharra baliatuz orografia latzeko itsasertza gaintitu beharko duzue, betiere olatuaren gainera jausten diren ezponda ikusgarriak ezkerrean utziz. Zati honetan aurkitzen dira higadurak harearrian sorturiko forma bitxi eta eder ugari, inguruko herrietakoek duten itxuraren arabera bataiatu dituztenak, esaterako, Gran Canto –1go sakanerako jaitsieran–, Trikuharri –bigarren sakan bano lehen– eta Orratz falikoa –laugarrenerako jaitsieran–.

Are ikusgarriagoa da Azabaratza kalaraino iristeko gaintitu behar duzuen, zuzenean itsasora daraman erlaitz etzana, leuna eta erraldoia. Gaintiezina iruditu arren, badu gutxienez igarobide bat –guk baliatu behar duguna–. Plaka makurraren

erdialdean, zatirik estuenean, pertsonaren eskuak edo higadurak, nork daki, azaleko estribo batzuk landu ditu bestaldera igarotzea errazten dutenak. Tentuz ibili, zuhurtziaz jokatu, pareta lehor dagoenean soilik igaro eta ahal izanez gero itsasbeheran eta itsasoa bare dagoenean.

Akerregi eta Tximistakurratua

Alga bilketarako lekua da Azabaratza. Bertan hainbat eraikin zatar topatuko dituzue, baita aipatu plaka beldurgarri horretan algak igotzeko erabiltzen zen txirrikaren arrastoak ere. Txirrika ordezkatu zuen pista kaskarra zabaldu zuten ondoren eta horretatik jarraitu behar duzue itsasertzeko bidaian aurrera. Lehen bihurtunean utzi behar duzue pista eta itsasertzeko zidorretik jarraitu. Nabarmen leuntzen da itsasertza zati honetan eta asko aurreratzen ari zarete irudituko zaizue. Arrantzale txabola zatarrak ezkututzen dituzten hiru sakan txiki igaroko dituzue, bakoitza bere errekaetarekin. Azkenekoa igarota, ordea, arrasto berdeek bidea moztu digun Akerregiko pitzadurara daramate. Oztopo hori gaintitzea benetan zaila denez, atzera egin eta arrantzale txabola baten alboetik igaroz bailaran gora jotzea da onena; Arrakala goiko aldetik,

Azabaratza kalaraino iristeko pasabeharreko oztopoa ikusgarria da: itsasora zuzenean amiltzen den erlaitz etzana, leuna eta erraldoia



sorreratik, igaro (130 m) eta atzera itsasertzera jaisteko.

Harkaitzeko hondartzan barrena Tximistakurratua izeneko ebakidura bitxia gaingitu eta aurrera segi behar duzue harik eta Gaztarrotz muturrera iritsi arte. Itsasora erortzen den labar bertikal eta ikusgarria gaingitzeko, ertzetik gora jo hormaren giltzarria den zirrikituaren bila. Jaitsiera zail eta mal-kartsuak bailara txundigarri baten hondoan utziko zaituzte, forma berezi eta bitxiak harreresiz inguratutik. Formazio berezietan gain ikusgarria da harkaitz horiek agertzen duten kolore sorta aberatsa: gorrixkak, laranjak, arrosak...

Gaztarrotzko sakanetik Erentzingo portura

Gaztarrotz edo Putrekabiko labirintotik irteteko zidorra jarraitu behar

duzue, hormen arteko zirrikitu estu eta pentsaezin batetik gora eginez. Harritu, liluratu egingo zaitu hurrengo zatiak: Zidorra bihurka doa pasabide egokiaren bila, esker-eskuin formazio natural ikusgarriak atzean utziz. Zein baino zein ederragoak diren harkaitzetan kolore zurixka nagusitzen da. Ezkerrean labar bertikalak itsasoraino amiltzen dira eta, behean, harkaitzetan antxetak karrikan ari dira. Pasaiako lurrak utzi eta Hondarribikoetan sartzerazozate.

Turruia puntaren parean bideak eskuinera egiten du nabarmen bailara zabal batean barneratzeko. Hortxe bertan, zuen eskuinean leize bat ikusiko duzue eta hortik gertu maskor itxurako estalpe erraldoia. Bidexka garbian barrena itsasertzeko azken oztopora iritsiko zarete, Erentzingo

bailarako horma erraldoia. Handik aitzina, askoz bide samurragoa aurkituko duzue, oztopo nabarmenik gabe. Baina hori beste baterako uztea aholkatzen dizuegu; luzetxo egun berean egiteko. Erentzingo erreka jaitsi beharrean, hara iritsi baino lehenago gora egiten duen zidorrari eutsi eta, altuera irabaziz, Lerueta inguruan pista zabal batera helduko zarete (215 m). Gora jarraitu eta hurrengo pista iristerakoan ezkerrean jo (320). Pasai Donibanetik Hondarribiara doan errepidera irteerako zarete Jaizkibelgo mendatetik kilometro eta erdira. Foru Aldundiak eraiki zuen Santa Barbarako paradorra duzue hor, egun begiratoki gisa atondua (405 m). Abiapauntura itzultzeko norberak bere modua prest izan behar du hemen. ■



ARGONZ ETXEA
L A N D E T X E A

31416 URZAINKI • NAFARROA
Tel: 948475023 • info@argonzetxea.com
www.argonzetxea.com